

Iñigo Landa Ijurko

ALTZAKO ETXEA ETA BASERRIAK DOKUMENTUETAN

1. SARRERA

Mendeetan baserriek irudikatu dute beste ezer baino hobeto Altza. “En ella no hay calle formal; pues se compone de casas separadas y de caserías de labranza” idatzi zuen Pablo Gorosabelek¹ XIX. mende erdialdean. Artikulu honen asmoa ez da gai honen dituen alor guztiak jorratzea, asko eta zabalak baitira. Lan honen helburua askoz xumeagoa da: Altzako etxeen eta baserrien izenak dokumentuetan bilatu, noizkoak diren lehen aipamenak jaso eta mendeetan zehar izen horiek zein ibilbide egin duten arakatu.

Agiritegiz agiritegi, handik eta hemendik Altzako Historia Mintegiko kideek² bildu ditugun dokumentuak dira lan honen abiapuntua eta oinarria. Dokumentu gehiago egon egongo dira, baina hemen bildutakoak nahikoak direla uste dugu gai honi buruzko funtsezko ildoak zeintzuk diren antzemateko.

Gaur egun Altzan laurogeita bi etxek eta baserrik zutik diraute, orain dela ehun urte zeudenen erdia baino gutxiago. Gutxi batzuk baserri bikainak izaten jarraitzen dute eta beste batzuk, ordea, etxe eraberrituak edota xumeak dira. Noiz botako zain daudenak ere badira. Batak zein besteak desagertu den garai bat gogorarazten diguten lekukoak dira.

Artikulu zehar, Altzan egon diren etxe eta baserri guztien errepasoa egingo dugu, handikien oinetxeak zein maizterren bizitokiak, mendeetan zehar iraun dutenenak zein ibilbide laburra daukatenak.

Altzako etxeei eta baserriei buruz hitz egiteko bi dokumentu jarri ditugu mugarri

¹ GOROSABEL, Pablo: Diccionario-Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa. 1862. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972. 20. or.

² Juan Carlos Mora eta Angel Calvo mintegikideek agiritegiz agiritegi urteetan egin duten arakatze lana ezinbestekoa izan da lan hau egin ahal izateko.

gisa, hasieraren eta amaieraren mugarriak, gure iritziz. Hasiera 1390. urteko San Martzial parrokiaren sortze-agirian kokatzen dugu eta, amaiera, 1894ko hautesle-errolan. Lehenengoan, altzatar auzokideen lehen zerrenda irakur dezakegu eta beraien abizenetan Altzako lehen etxeen izenak antzematen dira. Bestean, hautesleen zerrendan, etxeak eta baserriak haien helbide soilak dira eta mendeetako protagonismoa bigarren maila batera pasa da.

Lan honetatik kanpo utzi ditugu Altzaren udal barrutitik kanpo dauden etxeak, historiaren momentu jakin batzuetan Altzarekin loturik egon badira ere, batez ere San Martzial parrokiari. Kasu honetan daude Erretereriako Atañao, Abrin (Aurrengarai), Beraun, Maleo eta Bordazar, Astigarragako Buenaventura, Telleria, Udarge eta Usategieta, eta San Pedroko Illunbe, Azkuene, eta Martibono. Guztiak agertzen zaizkigu XVIII. mendean zehar Altzako parrokiari momentu batean edo bestean lotuak. 1635. urteko alardearen zerrendan aurkituko ditugu Astigarragako Buenaventura eta Egiako Etxetxo. Guztien artean aipamen berezia merezi du Pollon (Polloe) oinetxea, Altzako bizitzan murgildurik aurkituko baitugu maiz etxea eta abizen berekoak XV. eta XVII. mende artean (1465, 1535, 1590, 1597, 1620, 1626 eta 1637 urteetan).

AURREKARIAK

Altzako etxeen eta baserrien aurrekariak XII. mendeko dokumentuetan aurkituko ditugu, eta bi dira: Nafarroako botere-guneek sortutako dokumentuetan agertzen diren toponimoak eta Donostiako hiribilduaren sorrerarekin indartuko diren merkatori-leinuak.

Nafarroako dokumentuetan bost leku-izen aurkituko ditugu: Altza eta Soroeta bate-tik, eta Yrurdita, Anaizos eta Albizungo bestetik. Izen horiek aztertuak izan dira³ dagoe-neko eta, dokumentazio eskasia dela eta iluntasuna bada nagusi, XII. mendean Altzako lur-eremuak nolako erabilera eduki zezakeen ezagutzeko baliagarriak izan zaizkigu.

Nafarroako erregeak Iruñeko katedralari “Alça et Soroeta cum suis pertinentiis” ematen dio 1141. urtean, eta urte batzuk beranduago, 1178 urte aldera, autore batzuen ustez, “Alza et Soroetha cum tota sua pertinentia et cum totas suas pescarias” zehazten du⁴. Erregearenak ziren bi jabego horietan ezagutzen ditugun lehen bizitokiak egongo lirate-ke. Gure ustez, elkarrekin batera agertzen direnez⁵, Donostiatik Erretereriara doan bide-tik gertu kokaturik zeuden etxe sorta txikiak izango ziren, biak Pasaia badiaren, Molinao eta Herrerako itsasadarren inguruan.

Mende bereko beste dokumentu batean⁶, Nafarroako erregeak Leireko monasterioari

³ LANDA, Iñigo; ETXEBESTE, Juan Carlos: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”, In: Altza, Hautsa Kenduz II (1994), 69-84 orr. MORÁ, Juan Carlos; ZAPIRAIN, David: Altza: De los cubilares al Concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra. Artiga Bilduma 1. Altzako Historia Mintegia, 1996.

⁴ MARTÍNEZ DIEZ, Gonzalo: Guipúzcoa en los albores de su Historia (Siglos X-XII). Gipuzkoako Diputazio Probintziala, 1975, 204-206 orr.

⁵ Soroetaren kokapenaren inguruan, ikus LANDA, Iñigo: “Soroeta eta Sarroeta” In: Altza, Hautsa Kenduz VII (2003), 147-156 orr.. Artikuluan Urumea ibaiaren ertzean zegoela baztertzten du.

⁶ MARTÍNEZ, op. cit., 28-32 orrialdetan datazioaren inguruan, eta 172-174 orrialdetan dokumentua.

Donostialdean zituen jabetza sorta bat ematen dio: "...cum illo cubilare de Yrurdita usque ad Anaizos, cum illo cubilare de Anaizos, usque Albizungo...". Yrurdita, Anaizoz eta Albizungo "cubilare"-ak ziren, saroiak, alegia, abeltzainen eta abereen babeslekuak. Yrurdita Illurgita izenarekin eta Albizungo guregana heldu dira leku-izen gisa, bizitokien aztarnarik utzi gabe, Altzako ipar muturrean lehenengoa, Ulian, eta hegoaldeko muturrean bestea, Errenteriako eta Astigarragako mugan. Anaizoz beste bien artean beharko luke egon, baina ez du inolako arrastorik utzi.

Dokumentu horien arabera, beraz, XII. mende amaieran bost bizitokiren arrastoak dauzkagu, hiru abeltzaintzari zuzenki lotuak, eta beste biak nekazaritzari eta arrantzari⁷.

XII. mende amaieran ere, Donostiako hiribilduaren sorrerak behin betiko bultzada emango dio merkataritzari Gipuzkoako kostaldean, eta, harekin batera, inguruko espazioaren kolonizazioa eta ustiaketa sustatuko ditu. Horrela, hasiera batean hiribildua itsasoari begira sortu bazen ere, berehala, hiri-gutunaren bitartez, erregeak emandako lur-eremuak hornidurarako eta inbertsiotarako guneak bilakatu ziren.

Hiriaren jardueraz aberastutako merkatarik handiak izango dira datozen mendeetan etxeen eta baserrien sortzaile nagusiak, etxeei beraien abizenak emanez.

XIII. mendean Donostiako familiarik garrantzitsuenen artean zeuden Hua, Parada eta Gomis, hiriko oligarkiaren partaideak eta gaskoi jatorrikoak. Hiru horietatik Parada izango da gerora Altzako unibertsitatearen partaide bakarra. Beste biak, ezkontzen eta erosketen bitartez, Engomez leinuaren baitan bildurik geratuko dira. Leinu honek hiriko kargurik preziatuena berenganatuko du, prebostearena, —erregearen interesen ordezkaritza hirian, alegia—, Donostiako leinu boteretsua bihurtuz XV. mendean azken hamarkadara arte. XIV. mende hasierakoa da Hua-ko basoa eta ibarraren aipamena, gaskoiez idatzitako Martin Gomisen testamentuan, guregana Uba izenez heldu dena.

ABIZENA ETXEAREN IZENA BILAKATUZ

XIV. mendean zehar, Europa astindu zuen krisi ekonomikoak batetik eta, gurean, Pasaia badiaren albo batean Villanueva de Oiarso hiribilduaren sorrerak bestetik, Donostiak bere jurisdikziopean zeuden Altzako eta Pasaia lurraldean kolonizazioa areagotzera bultzatuko dute. Pasai San Pedro itsas jarduerari lotuta zegoen bitartean, Altzako kasuan nekazal kolonizazioa garatuko da. Kolonizazio horren erakusgarri dira garai horretan erabilitako "Artiga de Alza" izendapena eta San Martzial elizaren sorrera 1390. urtean. Momentu historiko horretarako, hain zuzen ere, Altzako unibertsitatean oinarritutako lehen erakundea osatuta dago, kontzejua, baina oraindik etxeak ez dira izango protagonistak, abizenak baizik: "...nos Juan de Bera, e Sancho de Lana, e Pedro de Casalega (Casares), e Juan de Castañeda, e Martin de Durango, e Martin de

⁷ Gure ustez, iparraldetik hegoaldera, leku horiek hurrenkera honetan leudeke kokaturik: Illurgita, Soroeta, Anaizos, Altza, Albizungo.

Eraso, e Rodrigo de la Lana, e Juan de Oreja, e Pes Dura, e Miguel de Casanueba (Casanau), e Juan de Luzuriaga, e Pez de Baro, e Martin de la Lana, e Martin de Sius, e Juan de Salamon, e Juan de Mercader, e Juan Perez de Luzuriaga, e Beltran Damas, e Juan de la Corbuera, moradores en la Hartiga e vezinos de la villa de San Sevastian seiendo aiuntados en el canpo que llaman Estibaús, segun que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar...⁸ Horiez gain, Juan de Gamboa, Ocha Damar eta Juan de Berra, hauek ere Artigako biztanleak, lekuko gisa agertzen dira.

Hogeita bi abizen horietatik zortzi oinetxe bezala ezagutuko ditugu: Berra, Casares, Aduriz, Casanao, Sius, Mercader, Carbuera, Estibaús. Horiez gain, XIV. mendeko dokumentazioan abizen altzatar gehiago agertuko zaizkigu gerora etxe-izena bilakatuko direnak. Orain arte aipatutakoei beste hauek gehitu behar dizkiegu: Sarrauta, Fayet, Liçardi, Anguelu, Laguras, Mirason.

Altzako etxeen lehen zerrenda 1456. urtean⁹ agertuko zaigu. Une honetatik aurrera etxeak bere izena izango du eta ohiko bihurtuko da etxeak abizena ematea. Hemen ere hogeita bi etxe dira, hemezortzi oso ezagunak: Casares, Pollon, Liçardi, Arriaga, Estibaús, Fayet, Miraballes, Mirason, la Carboera, Parada, Aduriz, Mercader, Arnaobidao, Arzac, Sara, Darieta, Casanova, Berra. Beste bi etxeen izenak ez ditu ematen dokumentuak, soilik jabeen deiturak: Luçea eta Ernialde. Eta beste bi etxeen izenak, Labao eta Jarramina ezezagunak dira guretzako eta historian zehar hemen bakarrik aipatzen dira, seguruenik beste izen bat hartu zutelako. Pollon etxea, Polloe bezala ezagutu dugu egun, altzatar bezala agertzen zaigu hemen eta altzatarra jarraituko du izaten 1626. urtera arte gutxienez.

XV. mendekoak dira Chipres eta Laguras etxeen lehen aipamenak ere eta baita Molinao (“Molino nuevo de Alza”) eta Pordeplata, oraingoz mendi aldea dokumentuetan.

LUBERRITZETIK USTIAKETA INTENTSIBORA: “URREZKO GARAIA”

XVI. mendean baserrien kopurua bikoiztu egingo da. Arrazoi zuzena Espainiako inperioaren hedapenean bilatu behar da, Amerika aldean batez ere, eta horrek ekonomiki eta demografikoki suposatu zuen bultzadan. Altzaren kasuan bereziki sagardoaren ustiaketa intentsiboa nabarmendu behar da, hiriko eta itsasontzien eskaera asetzeko.

Testuinguru horretan lehendik zeuden etxe eta baserriak finkatuko dira, —batzuk zorretan itota jabez aldatuko badira ere—, eta zenbait kasutan bigarren etxea ere sortuko da, adibidez: La Carbonera de baxo (yuso), Liçardichi, eta ‘vorda de la cassa Arzac nombrada Atañoa’. Alabaina, gehienak berriak izango dira: La Floresta, Alamurua, Larrachao, Maubernet/Malbernet, Marrus (“Sebastian de Babaça llamado Marros”), Pelegríne (“casa de Pelegrin”), Martinnun, Çapiain, Algarbe, Buscando, La Herrera, Ayenas, Santandertegui, Insaurren, Antondegui, Liçarragategui, Tomasena, Marijuan-

⁸ Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, San Martzial Parrokia (Altza), 4/4 (1390-1624) L032.

⁹ Valladolideko Errege Kantzelaritzaren Artxiboa, Pl. Civiles, Quevedo C 446-2, 35-38 orr..

degui o Zelailuze, Gomeztegui, Sarrauta, eta Pasenaldegui.

Hazkunde ekonomiko eta demografikoaren adierazgarri dira errota berri izango ditugu garai honetan: Mateo, “molino de Gomyztegui”, “molino del jurado Gaspar de Portu”, eta Argallo lekuan zegoena, La Floresta etxearena.

Mende honetan bi abizen agertuko zaizkigu Altzan etheen izenak izango direnak: Garro eta Illarradi.

Leku-izenak ere kontuan hartzekoak dira, izan ere lehendik ezagutzen genituen Molinao (Rotaberria, Errotaberria) eta Pordeprat izenei beste hiru hauek gehitu behar dizkiogu baserri ezagunen izenak bilakatuko baitira: “tierras censales de la iglesia Santa Catalina” (Kataliñene), Moneda, Amoreheder, eta Castin/Gaztelin/Castellon (Kastillun).

Denera, XVI. mendean berrogeita hamasei etxe zenbatu ditugu, aurreko mendearekin konparatuz %140ko hazkunde, proportzionalki Altzaren historian eman den etxe kopuru handitze handiena.

KRISIA ETA “ARTOAREN IRAULTZA”

Etxe kopuru handitzearekin batera, XVI. mendean gizarte mailaketa ere handituko da eta hurrengo bi mendeetan finkatuko da, boterea berenganatu duten eta baztertuak geratuko direnen artean gatazkak sortuz. Era berean, mailaketa hori etheen artean ere irudikatuko da, oinetxe eta gainontzeko etheen artean. Horren isla da Lope de Isastik bere “Compendio”-an (1625) Altzako oinetxeen zerrenda egiten duenean erakusten diguna, oinetxeak eta oinetxen artean armadunak nabarmenduz, “porque no se entiende que todas las casas antiguas, aunque sean principales, sean armeras”¹⁰: “la casa de Arzac, Garro, Miravalles A, Berra, Garbera, Casares, Aduriz, Sius, Mercader, Cipres, Larrachao A, Tomasene”. Donostian, “Fuera de los muros de la villa en su jurisdicción son casas solariegas antiguas: la de Pollo A, Algarbe, Parada, Arnaovidao A, Zarategui, Lizardi, Portuechea, Gomiztegui...”¹¹.

Itzal handiko leinuek bere ohoreari distira ateratzen dioten bitartean, Espainiak itsasoko nagusitasuna galdu zuen eta, ondorioz, XVII. mendea krisi garaia izango da. Alabaina, Kantauriko itsas bazterreko lurraldeetan, Espainiako gainontzekoetatik alderatuta, krisi hori nabarmenki arinduko da Amerikatik etorritako artoaren ustiaketarekin. Hasieran artoa abereentzako janari gisa landatu bazen ere, berehala bihurtu zen pertsonen oinarritzko elikagaia eta, ondorioz, eragin zuzena izango du demografiaren hazkundera¹² eta, jakina, etxe berrien sorreran.

Hogeita hamabi etxe berri sortuko dira mende honetan: Ainguelu, La Punta, Artola,

¹⁰ ISASTI, Lope de: Compendio historial de Guipúzcoa. Bilbao: Amigos del libro vasco, 1985, t.V, 90. or..

¹¹ Ibidem, 95-96. orr..

¹² MORA, Juan Carlos: “Análisis de la población altzatarra en el siglo XVIII”, In: Altza, Hautsa Kenduz 11 (2011), 43-59 orr..

Adariz, Bonazategi, Chapinena, Eguzkiza, Echeverria, Garrostegi, Guruceaga, Iparraguirre, Joanarena, Joanachorena, Catalinachorena, Lanberro, Larrerdi, Larrachao “que esta en la calzada de Pasajes”, Martinotegui, Miguel de Yturrieta, Miranda, Marimiranda, Mirandaburu, Moneda, Papin, Pirotegui, Plazencia, Sasoategui, Siustegui, Soston, Torrea, Ubegui, eta Çornoça.

“Artoaren iraultza” bezala izenda dezakegun garai horren ondorioak XVIII. mendean lehen erdialdera arte jarraituko dute, eta, horrela, mende amaieran denera ehun eta berrogeita bederatzi etxe zenbatu ahal izango dira Altzan; aurreko mendean baino hirurogeita bat etxe gehiago. Igoera hau zenbaki absolutuetan Altzaren historian egon den handiena da, eta portzentajeei begiratzen badiegu, bigarrena, XVI. mendean ondoren.

Urumeako zilegimendietako produktuen ustiaketan 1764. urtean parte hartu zezaketen etxe kopurua 149koa da. Bi urte lehenago aprobetxamendu horren inguruan sortutako auziari esker badakigu guztietatik hemeretzi bakarrik zirela zinegotzi-gaiena, hau da, etxeen jabeak. Gainontzeko guztiak bizilagun soilak edo maizterrak ziren¹³.

INDUSTRIALIZAZIOAREN ATARIAN

XIX. mendean sartuta, Altzak bere mugak defendatuko ditu Vargas Poncek sortutako Pasaiako udalerri berriaren aurrean¹⁴, eta urte batzuk beranduago, 1818. urtean, bere lehen independentziaren oinarriak finkatuko ditu. Beste puntuen artean, 13.ean, baserriak erabiliko ditu sortu nahi duen udalerria mugatzeko: “13º. Los limites con la Villa de Pasages la Caseria de Gomistegui; con la ciudad de San Sebastian, las casas Champarrene, Lizardi, Bonazategui, Ubavea y Esparcho; con la Villa de Astigarraga, la caseria de Garciategui y Yrasuenegoya; y con la de Renteria, las caserías de Soraburu, y Yparraquirre, dentro de cuíos limites incluso las denominadas casas, existen ciento quarenta y siete caserios havitando en ellos, ciento sesenta y quatro familias.”¹⁵

XIX. mendean zehar, etxe kopuruak igotzen jarraituko du, baina modu apalago batez eta beste arrazoiengatik. Denera, hogeita hamaika etxe gehiago izango dira, baina haien artean oso baserri gutxi ikusiko dugu eta gehienak etxebizitzak izango dira, hasi berri den industrializazioak erakartzen dituen langileen beharrei erantzuteko. Etxe berriak hauek dira: Altuna, Altuna-berri, Barberotegi, Bolagiñene, Buenavista, Casa vicarial de Uba, Caseta, Champarrene, Elenategi, Echechiqui, Evaristoenea, Guruceta (Mendiola), Herrería, Isabeleche, Juanda-berri, Cascarra, Londres, Lorete, Casería nueva de Casares, Mutiozabalenea, Obrador, Oleta, Paris, Pascualdegui, Pasenaldegui, San Marcos (Cantina), Fábrica-Tito, Chonchorrenea.

¹³ MORA, Juan Carlos: “Los Montes Francos del Urumea”, In: Altza, Hautsa Kenduz III (1996), 37-50 orr.

¹⁴ “Memoria de las razones con que la ciudad y consulado de San Sebastián, la aldea de Alza y el clero de aquella parte de Guipúzcoa tienen reclamadas en el Ministerio de Marina y en el Consejo Supremo del Almirantazgo las novedades que se han hecho en el puerto de Pasages, y en el vecindario y territorio contiguo a sus orillas. Escrita y entregada a fines del año de 1807 por el Diputado de la Ciudad en las Cortes.” Oyarzun: Imprenta de Ramón Baroja, 1814. Donostiako Udal Liburutegian dagoen orijinalaren kopia bat Altzako Tokiko Bilduman, A1049 signaturarekin.

¹⁵ LANDA, Iñigo: “Altzaren lehen independentziaren agiri bilduma”, In: Altza Hautsa Kenduz IV (1997), 156. or.

Horrez gain, beste joera bat hartu behar dugu kontuan: lehengo etxeak eta baserriak egokitu egiten dira familia gehiago hartzeko. Horrela, Altzak inoiz izan duen etxe kopuru handiena edukitzera helduko da, ehun eta hirurogeita hamazazpi denera.

Hasieran esan dugun bezala, 1894. urteko erroldak jartzen dio, gure ustez, Altzako etxeen eta baserrien garaiari nolabaiteko amaiera: denera 466 hautesle dira, horietatik 232 nekazariak, erdia baino gutxiago. Kalea gailendu egin zaio baserriari. Hortik aurrera beste mundu baten aurrean aurkituko gara, non hiriko bizimodua eta jarduera ekonomikoak izango diren nagusi.

2. ALTZAKO ETXEEN ETA BASERRIEN FITXAK

Etxe bakoitzarekin fitxa bat egin dugu eta fitxa barruan agertuko dira etxe horrek denboran zehar izan dituen izen edo aldaera ezberdinak. Hauek dira fitxak osatzeko erabili ditugun atalak eta irizpideak:

• Izena:

Izena idazterakoan XIX. mende amaiera arte erabili den aldaerarik erabiliena lehenetsi dugu eta idazkeran, orokorrean, egungo euskarazko ortografiara hurbildu gara (v=b; gu=g; c,qu=k; ç=z/tz; ch=tx; y=i), baina ñ, y, ll, eta h hizkiak bere horretan utziz. H hizkiaren kasuan dokumentuetan agertzen bada soilik erabili dugu (ZAR eta ez ZAHAR, BEA eta ez BEHEA).

Izenen aldaerak hainbat kasutan oso ezberdinak dira eta horregatik, bilaketa erraztearren, aurkibide bat osatu dugu lan honen laugarren atalean historian zehar eta gaur egun erabilitako aldaera horiek guztiak bilduz.

Izenaren ondoan, parentesi artean, kokapena adierazi dugu, lan honen bosgarren atalean eskainitako maparen koadrikula oinarri gisa hartuz. Etxea desagertu bada adierazi dugu. Ez badakigu kokatua non zegoen koordinatuen ordeztz galdetara ikurra jarri dugu. Hamasei etxeen kokapena ezezaguna da. Gehienak dokumentu edo garai jakin batean soilik aipatuak dira.

• Dokumentuak:

Fitxa hauek osatzeko dokumentuetan oinarritu gara. Etxeen zerrendak hartu ditugu kontuan batez ere, baita etxe baten lehen aipamena jasotzen duten dokumentuak ere. Mende batean etxe baten beste aipamenik ez badago kontuan hartu dugu ere bai. Etxearen aipamena bibliografikoa bada erreferentzia oharretan eskainiko dugu.

Urtearen aipamenak dokumentuaren erreferentzia ematen du eta lan honen laugarren atalean dokumentuen zerrendan irakur daiteke bere laburpena. Dokumentuaren edukia zehatzago ezagutu nahi izanez gero, Altzako Tokiko Bildumak interneten eskaintzen duen datu-basera jo beharko da, non dokumentuaren kopia eta, zenbait kasutan, transkribapena ere kontsulta daitekeen. Urtearen erreferentzia bibliografikoa bada, ohar gisa agertuko da jaso.

Urtea soilik agertzen bada, etxearen izen aldaera fitxaren sarrerakoarekin bat egiten du. Beste grafiaren bat baldin badauka, urtearen segidan agertuko da. Urtea kortxeteen artean agertzen bada, etxearen aipamenik ez dago baina etxearekin lotutako abizena edo bestelako izaera (zelaia, lekua, lursaila...) bai.

• **Oharrak:**

Atal honen hainbat jakingarri jasoko dugu: oinetxea izan bazen, errota, eta bestelakoak.

3. DOKUMENTUAK (I. eranskina)

Lan hau egiteko erabilitako dokumentuen laburpenak eta jatorriak eskainiko ditugu hemen. Gorago esan bezala, batez ere etxe zerrendak eskaintzen dituzten dokumentuak hartu ditugunak kontuan, eta baita ere etxe baten lehen aipamena edota mende batean dagoen aipamen bakarra jasotzen dituzten dokumentuak.

Kronologikoki ordenatuak daude, zaharrenetik berrienera, eta etxearen fitxan jasotako urtetik abiatuz, dokumentuaren laburpena, data, eta iturria eskainiko dira.

Hemen aipatutako dokumentuen edukia zehaztasun handiagoz ezagutu nahi ezkerro Altzako Tokiko Bildumaren datu-basera jo daiteke, Internet bitartez, www.altza.info helbidean.

4. IZEN ALDAEREN AURKIBIDEA (II. eranskina)

Fitxetan agertzen diren etxeen izen guztiak zerrendatu ditugu eta ondoan zein fitxatan aurkituko dugun adierazi dugu (adb.: Sieus > Sius), fitxetan erabilitako izenak letra larritz nabarmenduz. Donostiako toponimiaren arloan ezinbesteko erreferentzia da Josu Tellabidek egindako lana¹⁶, eta horregatik berak jasotako etxeen eta baserrien izenak ere aurkibidean sartu ditugu, aldaera nagusia soilik eta aldaera hori ez badator bat zehatz-mehatz guk erabilitakoarekin.

5. MAPAK (III. eranskina)

Etxeen eta baserrien kokapena adierazteko bi mapa prestatu ditugu. Lehenengoa Altzaren mapa orokor bat da non, antzinako bide sarea oinarri gisa hartuz, historian zehar izan diren etxeak eta baserriak Altzaren udal barrutiaren eremuan duten banaketa erakusten den.

Bigarren mapan, etxe eta baserrien izen eta kokapen zehatza jasotzen da, fitxetan kartzeko erabilitako koadrikularen arabera. Zehaztasun handiagoz ikusgai izateko, lau mapetan zatitu dugu.

¹⁶ TELLABIDE AZKOLAIN, Josu: Donostiako Toponimi Erregistroa / Registro Toponímico Donostiarra. Donostiako Udala, 1995. op.cit..

ALTZAKO ETXEA ETA BASERRIAK DOKUMENTUETAN

ADURIZ (6E)

Dokumentazioa: [1390 Dura, Pes]; 1465; [1553 Juan Perez de Duriz]; 1561; 1620; 1626; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1861; 1862; 1894.

Oharrak: Oinetxea.

AGINAGA (5E, desagertua)

Dokumentazioa: 1719; 1764; 1782; 1861 Aguiñaga; 1862 Aguiñaga; 1894.

ANGELU-BEA (9B)

Dokumentazioa: 1635 Aynguelu; 1703 Angelu; 1719; 1764 Ainguelu de abaxo; 1782 Ainguelu de abajo; 1861; 1862 Aingueru-bea; 1863 Aingueru-béa; 1894 Ainguelu.

ANGELU-GOYA (9B)

Dokumentazioa: 1751 Aingueru garaikoa; 1764 Ainguelu de arriba; 1782; 1861; 1862 Aingueru-goya; 1863 Aingueru-goya; 1894 Ainguelu goya.

ANGELU-BERRI (9B)

Dokumentazioa: 1861 Ainguelu; 1862 Aingueru-berri; 1863 Aingueru-berri; 1894 Ainguelu-berri.

AKULAR (6F)

Dokumentazioa: 1626; 1635; 1703; 1719; 1764 Acular grande; 1782 Acular mayor; 1805; 1861; 1862 Acular-aundi; 1863 Acular-aundía; 1894.

AKULAR-TXIKI (6F)

Dokumentazioa: 1764; 1782; 1861; 1862; 1863; 1894.

ALAMORIA (7G, desagertua)

Dokumentazioa: [1523 tierra llamada Alamurua]; 1575 Alamuba¹⁷; 1626 Alamuria; 1635 Alamulia; 1719 Ala Mulia; 1782 Almuria; 1805 Alemuria; 1860 Alejandriya; 1861 Alamodia; 1862; 1863; 1864 Alamulia; 1894.

ALAPUNTA (4C, desagertua)

Dokumentazioa: 1635 La Punta; 1719; 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863; 1894.

ALBERNAT (5G, desagertua)

Dokumentazioa: 1528 Maubernet, Malbernet¹⁸; 1719 Avernat (errotar); 1760 Molino Iparraguirre¹⁹; 1764 Molino de Albernate; 1805 Molino de Iparraguirre; 1860 Errotazar; 1861 Abarueta; 1862; 1863; 1868; 1894 Alvernate.

Oharrak: Errota.

¹⁷ MURUGARREN ZAMORA, LUIS: "Cuaderno de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián – Registros de actas I (1570-1599)", In BEHSS, 30 (1996), 336. or..

¹⁸ MUGICA, ZUFIRIA Serapio: "Los Gascones en Guipúzcoa" In: Estudios sobre San Sebastián Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra; Donostia, 1980; 96 or

¹⁹ "Plano de la Ría y puerto de los Passages y de las poblaciones situadas en su costa, según se hallaban el año de 1760". 1761. In: GÓMEZ PIÑEIRO, J. eta besteak: Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa, I: Cartoteca Histórica del Servicio Geográfico del Ejército. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia: 1994, 231 or.

ALGARBE (4B, desagertua)

Dokumentazioa: 1554; 1597; 1620; 1626; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1861; 1862; 1863; 1894.

Oharrak: Oinetxea.

ALTUNAENE (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1764 Echeuerri de Errera; 1782 Echeberria de Errera; 1805 Casa de Altuna; 1861 Altuna; 1862; 1863; 1894.

ALTUNA-BERRI (4D)

Dokumentazioa: 1861; 1862; 1863; 1894.

AMOREDER (8E)

Dokumentazioa: 1516 Amoreheder; 1545 Amoreheder; 1620; 1626; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1861 Amoeder; Amueder; 1862 Amore-eder; 1863; 1894.

Oharrak: 1764. urteko dokumentuan etxeak barrutiari (partido) ematen dio izena.

ANTXO (4G, desagertua)

Dokumentazioa: 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863 Anchó.

Oharrak: 1894. urteko erroldan Altza bi barrutitan banatzen da eta Antxo horietako bat da, Molinaotik Herreraino hartzen duena.

ANISAENE (7A, desagertua)

Dokumentazioa: 1764 Añisarena; 1782 Anisarena; 1861; 1862 Anisene; 1863 Anisáene; 1894.

ANTONDEGI (9C)

Dokumentazioa: 1588; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1861; 1862; 1863; 1894.

ARANZURIENE (4B)

Dokumentazioa: 1719 Arancivia; 1764 Aranzubiene; 1782 Aranzurienea; 1861; 1862; 1863 Aranzuri; 1894.

ARGEL (6C, desagertua)

Dokumentazioa: 1764; 1782; 1805; 1861; 1862 Argel-aundi; 1863 Argel-aundía; 1894 Argel-aundi.

ARGEL-ETXEBERRI (6B, desagertua)

Dokumentazioa: 1805 Echeverri; 1861 Argel-berri; 1862 Argel-berri; 1863 Argel-berri; 1894.

ARGEL-TXIKI (6C, desagertua)

Dokumentazioa: 1861 Argel; 1862; 1863; 1894.

ARNAOBIDAO (4C, desagertua)

Dokumentazioa: [1442]²⁰; 1465; 1535 Arnauvidau; 1539; 1609; 1635; 1703 Ernabidao; 1719 Hernavide; 1764 Arnabidao; 1782 Arnabida; 1805 Ernabiro; 1861 Ernabidado; 1862 Ernabido; 1863 Ernabido; 1894 Hernavao.

²⁰ LIZASO, Domingo de: Nobiliario de los Palacios, Casas Solares y Linajes nobles de la MN y ML Provincia de Guipúzcoa. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1983.

Oharrak: Oinetxea. Bidebietan beste baserri bat egon zen Ernabiro izenekoa, Ernabiro zaharra ordezkatzeko beste kokapen batean eraikia.

ARRASKENE (4G, desagertua)

Dokumentazioa: 1782 Arrascoenea; 1805 Arrascuenea; Arrascuenechiqui; 1861 Arrascoena; 1862; 1863 Arrasquena.

ARRIAGA (4E, desagertua)

Dokumentazioa: 1465; 1467; [1553 Juan Perez de Arriaga]; 1620 Arriaga; 1626 Arriaga; 1703; 1719; 1764; 1782; 1805; 1860 Arriyaga, 1861; 1862; 1863; 1894.

Oharrak: Oinetxea. Armarría zeukan, gaur egun parkean ikus daitekeena.

ARRIAGA-TXIPI (?)

Dokumentazioa: 1620 Arriagachipi; 1626 Arriaga-chipi.

Oharrak: Arriagaren ondoan zegoela pentsa daiteke.

ARRIETA (8B)

Dokumentazioa: 1761 Arrieta de yuso; 1764 Arrietaberri; 1782; 1861; 1862; 1863.

ARROAS (6B, desagertua)

Dokumentazioa: 1703 Arroras; 1719 Arroa; 1764; 1782; 1861; 1862; 1863 Arroás; 1894.

ARTEAGA (5E)

Dokumentazioa: 1703; 1719; 1764; 1782; 1862; 1894.

ARTOLATEGI (9B, desagertua)

Dokumentazioa: 1635 Artola; 1719; 1764; 1782; 1862; 1863 Artolátegui.

ARZAK (6F)

Dokumentazioa: 1465; 1537 Arçaque; 1545; 1620; 1626; 1626 Arçac suso; 1635; 1703 Erzac suso; 1719 Arzaque; 1771; 1764 Arzac suso; 1782; 1860 Arzaque; 1861; 1862; 1863; 1894 Arzaca.

Oharrak: Oinetxea. Armarría dauka etxaurrean.

ARZAK-TXIPI (6F)

Dokumentazioa: 1626 Arçac-chipi; 1635 Arçac de yuso; 1703 Arzac yuso; 1719 Arzaque chiqui; 1764 Arzac yuso; 1771 Arzac; 1782 Arzac de abajo; 1860 Arzachipi; 1861 Arzachipi; 1862 Arzac-chiqui; 1863 Arzac-chiqui; 1894.

AUDARIZ (7D, desagertua)

Dokumentazioa: 1635 Adariz; 1703; 1764; 1782 Arduriz; 1860 Aderiz; 1861; 1862 Aldariz o Audariz; 1863; 1894.

AYENAS (9C, desagertua)

Dokumentazioa: 1596; 1719; 1764; 1782; 1860 Alnaz; 1861; 1862; 1863 Ayénas; 1894.

AYETE (5F, desagertua)

Dokumentazioa: 1465 Fayet; 1620; 1626 Ayet; 1635 Ayet; 1764; 1782; 1805.

Oharrak: XVI. mendean ez daukagu etxearen daturik, baina bai abizena daramaten

altzatarrena: 1523 Miguel Sanchez de Fayette; 1553 Juanes de Fayette; 1555 Juanes Ayet; 1568 Martin de Faiet, “podabin”.

BALERDIENE (8B, desagertua)

Dokumentazioa: 1703 Balerdi; 1764 Balerdine; 1782 Balerdienea; 1861; 1862 Balerdi; 1863; 1894.

BARBEROTEGI (5E)

Dokumentazioa: 1861; 1862 Casa del Cirujano; 1894.

BARONA (5G, hondatua)

Dokumentazioa: 1703 Badona; 1719 Badona; 1764 Badona; 1782; 1805 Baduna; 1861; 1862; 1863 Barrona; 1894.

ABENTA-BEA (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1703 Venta; 1719 Venta de Herrera; 1764 Venta de abaxo; 1782 Benta de abajo; 1805; 1862 Venta-bia o Herreria; 1863 Venta-béa; 1894.

BENTA-BERRI (4B, desagertua)

Dokumentazioa: 1764 Venta chiqui; 1782 Ventachiquia; 1862; 1863; 1894.

BENTA-GOYA (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1764 Venta de arriba; 1782 Venta de arriba; 1805; 1861; 1862; 1863; 1894 Benta-bea (sic).

BERAKULLENEA (?)

Dokumentazioa: 1719 Bereculla y Candelamar; 1764 Bercullene; 1782.

Oharrak: Kokapen ezezaguna, “Partido de Arriaga” zerrendan zegoen, behar bada Arraskene ondoan.

BERRA (4G)

Dokumentazioa: 1390 [Berra; Bera; Presa]; 1465; [1523]; [1555]; 1620; 1626; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863; 1894 Berra-goya.

Oharrak: Oinetxea.

BOLAGILLENE (8B, desagertua)

Dokumentazioa: 1703 Poleero; 1719 la del Polero; 1764 Poleaguillerenea; 1782 Poleaguilleanea; 1861 Bolaguiñene; 1862 Bolañene; 1863 Bolañene; 1894.

BONATZATEGI (6B, desagertua)

Dokumentazioa: 1620; 1626; 1703 Bonasategui; 1719 Bonasategui; 1764; 1782.

BORDA-ARZAK (7F)

Dokumentazioa: 1703 Borda; 1719 Borda; 1764 Borda de Arzac de arriba; 1771; 1782 Borda; 1805 Borda de Arzac; 1861 Borda; 1862 Borda Arzac; 1863 Borda de Arzac.

Oharrak: 1575. urtean ‘vorda de la cassa Arzac nombrada Atañoa²¹ daukagu. Atañoa Errenteriako baserria da, mugatik eta Borda-Arzaketik nahiko gertu. Borda eta Atañoa San Martzial parrokiaren Errosarioaren kofradiaren zerrendan agertzen dira 1703. urtean.

²¹ MURUGARREN, op. cit., 337. or..

BUENAVISTA (4G, desagertua)

Dokumentazioa: 1894.

BUSKANDO (4B, desagertua)

Dokumentazioa: 1566 Luscando; 1635; 1860.

Oharrak: Etxe hau Altzaren udal barrutian kokatuta badago ere ez da zerrendetan agertzen.

CASA DE CARNICERIA (5E, desagertua)

Dokumentazioa: 1764 Casa Carnizeria; 1782; 1862; 1894.

Oharrak: 1862. urteko zerrendan Aginaga eta Txapiñene artean, hau da, udaletxearen orubean (ikus CONCEJO).

CASA VICARIAL (5E)

Dokumentazioa: 1719; 1764; 1782; 1861 Vicarial; 1862 Casa Vicarial de Alza; 1894 Vicarial.

CASANAO (5E, desagertua)

Dokumentazioa: [1390 Casanueba]; [1396 Casanau]; 1465 Casanova; [1553 Casanoteva, Casanueva]; 1620 Casanueba; 1626 Casanueba; 1635 Casanueva; 1703; 1719 Casanova; 1764; 1782; 1861; 1862; 1863 Casanáo; 1894.

CASARES (5F)

Dokumentazioa: [1390 Casares; Casalega]; 1465; [1516 Martin de Casares]; [1553 Juanes de Casares]; 1620; 1626; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863 Casáres; 1894.

Oharrak: Oinetxea. Armarria dauka.

CASARES, CASERÍA NUEVA (5F, desagertua)

Dokumentazioa: 1805 Casería nueva de Casares.

Oharrak: Etxe hau soilik Vargasen planoan agertzen da, gutxi gorabehera geroago MATXIKAR etxea egongo den lekuan.

CASETA (4E, desagertua)

Dokumentazioa: 1894.

Oharrak: Trenbide-pasagunearen ondoan.

CONCEJO (5E)

Dokumentazioa: 1764 Casa Conzegil; 1782 Casa Concejil; 1861 Consejo; 1894.

Oharrak: Udaletxea.

DARIETA (4F, desagertua)

Dokumentazioa: 1465; [1555]; 1703; 1719; 1764 Darieta maior; Darieta menor; 1782 Darieta mayor; Darieta menor; 1805; 1861; 1862; 1863; 1894.

EBARISTOENEA (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1894.

EGUZZKITZA (5F, hondatua)

Dokumentazioa: 1620; 1635; 1703; 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863; 1894.

ELENATEGI (10B)

Dokumentazioa: 1861; 1862; 1863; 1764 Purustundegui; 1894.

ERRETIRO (4F, desagertua)

Dokumentazioa: 1703; 1719 Retiro; 1764 Retiro; 1782; 1805.

ERROTAZAR (5D, desagertua)

Dokumentazioa: 1512 molino de La Herrera; 1597 molino de Gaspar del Portu²²; 1626 Errera; 1635 la Erreca; 1764 Molino de Peredoene; 1782 Peruenecoerrota; 1861 Erreria, Errota; 1862; 1863; 1894.

ESKALANTEGI (5G, desagertua)

Dokumentazioa: 1703; 1719; 1764; 1782 Ascalantegui; 1805; 1860 Espagandiaundi; 1861; 1862; 1863; 1894 Escalantegui; Escalantegui-chiqui.

Oharrak: Eskalantegi-txiki etxearentzat ikus LORETE.

ESPARTXO (7A)

Dokumentazioa: 1719; 1736; 1764; 1782; 1861; 1862 Esparchu Esparta; 1863 Esparchu; 1894

Oharrak: Gaur egungo harrizko irudi bat dauka txertatuta etxaurrean, armarri gisa.

ESTIBAOS (5E)

Dokumentazioa: [1390 “campo de Estibaus”]; 1465 Estibaos; [1516 Petri Martinez de Estibaos]; 1620; 1626; 1635 Estibares; 1703 Estibao; 1719 Ituios; 1764 Estibaus; 1782 Estibaus; 1861 Estibao; 1862 Estibaus; 1894 Estibaus-aundi.

Oharrak: Oinetxea.

ESTIBAOS-TXIKI (5E)

Dokumentazioa: 1861 Estibaochiqui; 1862 Estibaus-chiqui o Atraquene; 1894 Estibans

ETXEBERRI (6D)

Dokumentazioa: 1620 Echeverria; 1703 Echeverria; 1719; 1764 La casa nueva de Sius; 1782 Sius Echeverria; 1861; 1862 Echeberri de Serres; 1863 Echeberri de Sérres; 1894 Echeverri; Echeverri-goya.

ETXEBERRI-KOSTA (4F)

Dokumentazioa: 1764 La casa de Martiarena; 1782 Martiarena; 1805 Echeverri; 1861 Echeberri; 1862; 1863; 1894.

ETXELUZE (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1703 Subimus; 1719 Zubimusu; 1764 Subimusu; 1782 Zubimusu y su casa nueva; 1805 Subimusu; 1860 Zubinsuene; 1861; 1862 Echeluze o Subimusu; 1863; 1894.

ETXETXIKI (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1805; 1861; 1863; 1862.

FABRICA DE CAL HIDRAULICA (?)

Dokumentazioa: 1862.

²² MURUGARREN, op. cit., 486. or..

Oharrak: Zerrendan PERUENE eta ERROTAZAR etxeen artean agertzen da.

FABRIKA (5C, desagertua)

Dokumentazioa: 1512 “molino e la presa e açequia llamado Argallo”; 1635 Argallon; 1719 molino de Julian Mas; 1764 Argallao (errota); 1782 Floresta o Argallo; 1805 Molino o fabrica de papel; 1861 Fabrica; 1862 Fábrica de Julimasena; 1863 Fábrica de Santestéban; 1894 Fabrica Julimasene.

Oharrak: Errota.

GALANTENE (7F)

Dokumentazioa: 1703 Galantarena; 1719 Galantarena; 1764 Galantarenea; 1782 Galantarene; 1805 Galantene; 1862; 1863; 1894 Galantaene.

GARBERA-BEA (6D)

Dokumentazioa: 1531 La Carbonera de baxo; 1539 La Carboera de abaxo; 1620 Garbuera de iuso; 1635 Carbuera de jusso; 1703 Garbuera; 1719 Garbera de yuso; 1764 Carbuera de avaxo; 1782 Garbera de abajo; 1861 Garrrerabea; 1862; 1863 Garberá-béa; 1894.

Oharrak: 1531. urteko dokumentuan La Carbonera de baxo eta La Carbonera agertzen dira; ondorioz, Garbera-goia litzateke jatorrizko Garbera eta Garbera-bea berriagoa.

GARBERA-BERRI (7C, desagertua)

Dokumentazioa: 1894.

GARBERA-GOYA (7C, desagertua)

Dokumentazioa: [1390 La Corbuera]; [1450 La Carbuera]; 1465 La Carboera; 1531 La Carbonera; 1539 La Carboera; [1568 Garvera]; 1626 Carbuera de suso; 1703 Garbuera arriba; 1733 Carbuera de suso; 1764 Carbuera de arriba; 1782 Garbera de arriba; 1861 Garrera-goya; 1862; 1863 Garberá-goya; 1894.

Oharrak: Oinetxea. 1733an, bertan oratorio bat dago.

GARRO (5C, desagertua)

Dokumentazioa: [1501 Garro, Joanicot de]; 1620; 1625²³; 1626; 1703; 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863 Garró; 1894.

Oharrak: Oinetxea. Lope de Isastik²⁴ Miguel de Garro kapitain altzatarrak 1540. urteko itsas bataila batean izan zuen parte hartzearen berri ematen du.

GARROSTEGI (7B)

Dokumentazioa: 1635; 1719 Garrotegui; 1764; 1782; 1861; 1862; 1863 Garróstegui; 1894.

GARTZIATEGI (11C)

Dokumentazioa: 1719 Garcitegui; 1764; 1782; 1861; 1862; 1863 Garciátegui; 1894.

²³ ISASTI, Lope: Compendio historial de Guipúzcoa. Bilbao: Amigos del libro vasco, 1985, t. VI, 525. or..

²⁴ Ibidem.

GAZTELUENE (8F)

Dokumentazioa: 1719 Gastelurena; 1764 Gazteluenea; 1782 Gazteluenea; 1805 Gazteluenea; 1862 Gaztelu; 1863 Gaztelu; 1894.

Oharrak: 1719. urtean Gastelurenaren jabea Miguel de Gastelu da.

GOMISTEGI (4D)

Dokumentazioa: 1535 Gomeztegui; 1545 Gomiztegui; 1625 Gomiztegui²⁵; 1635 Gomiztegui; 1703; 1719 Gomeztegui; 1764; 1782 Gomiztegui; 1805; 1861; 1862; 1863 Gomiztegui; 1894 Gomiztegui.

Oharrak: Oinetxea. Gomistegi bota egin zuten errepidea egiteko eta berria eraiki egungo kokapenean.

GUARDAPLATA (3D, desagertua)

Dokumentazioa: [1456 Pordeplata, monte]; 1535 Pordeprat; 1554 Pordeprat; 1566 Pordeprat; 1635 Pordeplat; 1703 Bordeplat; 1719; 1733 Gordaplat; 1764 Pordeplat; 1782 Por de Plat; 1805; 1861; 1862 Por de Plat o Guardaplata; 1863 Por de Plat; 1894 Guarda-plata.

Oharrak: 1719. urtean errota bat duela agertzen da (ikus ZALDUAKOERROTA). 1733an, oratorio bat dago.

GURUTZETA (2D)

Dokumentazioa: 1860 Mendiola; 1861 Guruceta; 1862 Guruceta o Mendiola goya; 1863 Gurutzeta; 1894 Guruceta-goya.

GURUTZETA-BEA (?)

Dokumentazioa: 1894 Guruceta-bea.

HERRERIA (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1597 La Herrera²⁶; 1607 Portu; 1620 Portua; 1625 Portuechea²⁷; 1626 Portua; 1635 Portua; 1703 Portu; 1719 Portuza; 1764 Portuzar; 1782 Portucha o Portuechea; 1805 Portuzar; Herrería de Altuna; 1861 Herreria; 1862 Herreria; 1863 Herrería; 1894 Herreria.

Oharrak: Oinetxea. Herreria eta Portuzar etxeak bidearen bi aldetara aurrez aurre marraztuak agertzen dira 1805. urteko planoan (Ikus ALTUNA).

IBARBURU (6E)

Dokumentazioa: 1736; 1764 Ibarburunea; 1782; 1861; 1862; 1863; 1894.

ILLARREGI (7D)

Dokumentazioa: [1539 Juan Perez de Yllarradi]; [1553 Yllarradi]; 1620 Illarradi; 1626 Yllarradi; 1635 Yllarradi; 1703 Illarradi; 1719 Illarradi; 1764 Illarradi; 1782 Illarradi; 1861; 1862; 1863 Illarrégui; 1894.

INTXAURRONDO (4B)

Dokumentazioa: 1597 Insaurrondo; 1719; 1733; 1764; 1782; 1861; 1862.

²⁵ Ibidem.

²⁶ MURUGARREN, op. cit., 486. or..

²⁷ ISASTI, op. cit., 96. or..

Inchaurrondo-aundi; 1863 Inchaurrondo aundía; 1894.

Oharrak: 1733. urtean oratorio bat zeukan.

INTXAURRONGO-TXIKI (4B, desagertua)

Dokumentazioa: 1862; 1863.

IPARRAGIRRE (6G)

Dokumentazioa: 1620; 1626; 1635; 1703; 1719; 1764; 1782; 1805; 1861; 1862; 1863; 1894.

Oharrak: Errota bat eduki zuen (ikus ALBERNAT).

IRASMOENE-BEA (10B)

Dokumentazioa: 1703 Iramorene; 1719 Irasmorenea; 1764 Irasmoene de abaxo; 1782 Irasmoenea de abajo; 1860 Tesmoene; 1861 Irasmoenabeya; 1862 Irasmo-bea; 1863 Irasmo-béa; 1894 Irazuene-bea.

Oharrak: 1703. urteko Iramorene ez dakigu goikoa edo behekoa den.

IRASMOENE-GOYA (8E)

Dokumentazioa: 1703 Iramorene; 1719 Irasmorena; 1764 Irasmoene de arriba; 1782 Irasmoenea de arriba; 1818 Yrasuenegoya; 1860 Yamoene; 1861 Irasmoenagoya; 1862 Irasmo-goya; 1863 Irasmo-goya; 1894 Irazuene-goya.

Oharrak: 1703. urteko Iramorene ez dakigu goikoa edo behekoa den.

ISABELETXE (8C)

Dokumentazioa: 1860 Ausacalte; 1861; 1862 Isabel-eche; 1863; 1894 Isabel-eche.

ITURAINDEGI (?)

Dokumentazioa: 1635 Yturaindegui.

JUANAENEA (6E)

Dokumentazioa: [1554 Maria Perez de Guruçeaga]; 1620 Guruceaga; 1626 Joanarena; 1719 Juanarena; 1761 Juananene; 1764 Juanarena o Guruzeaga; 1782 Juanaenea; 1894 Juanaene.

JUANATXOENE (6G)

Dokumentazioa: 1635 Joanchorena; 1719 Juanachorenacoao; 1764 Juanachone; 1782 Juanechenea; 1805 Juanachonea; 1861 Juanchone; 1863; 1862; 1894.

JUANDA-BERRI (6G)

Dokumentazioa: 1894 Juanda-berri.

JULIMASENE (5C)

Dokumentazioa: 1512 La Floresta; 1535 Floresta; 1719 Julian Mas; 1764 Floresta; 1782 Floresta o Argallo; 1805 Julimasenea; 1861; 1863 Juliamasena; Julianasena-berri; 1862 Julianasena; 1894.

KASKARRA (4D, desagertua)

Dokumentazioa: 1894 Cascarra.

KASTILLUN (6F)

Dokumentazioa: [1537 “tierras llamadas Castin”, “tierras llamadas Gaztelin”]; 1561

Castellon; 1620 Castillun; 1626; 1635; 1703; 1719 Castilun; 1764; 1782 Castillum; 1805; 1861; 1862; 1863 Casta-illun; 1894.

KATALIÑENE (7D)

Dokumentazioa: [1527 “tierras censales de Santa Catalina”]; 1626 Catalinarena; 1635 Catalinarena; 1703 Catalinarene; 1719 Catalinarena; 1764 Cathalinarenea; 1782 Cathaliñenea; 1861; 1863; 1862; 1894.

KATALINTXOENE (8B)

Dokumentazioa: 1635 Catalinachorena; 1703 Catalina goyene; 1719 Catalinachorena; 1764 Cathalinchorenea; 1782 Cathalinchoenea; 1860 Catalinchacar; 1861; 1863 Catalincho; 1862; 1894.

LAGURAS (3B, desagertua)

Dokumentazioa: [1379 Pelegrín de Laguras]; [1487 Pelegrín de Laguras]; 1490; 1501; 1535; 1635; 1703; 1719 Laduras; 1764; 1782; 1860 Laboras; 1894.

Oharrak: XIX. mendean San Martin izeneko gotorlekua zegoen bertan.

LANDERRO (6G)

Dokumentazioa: 1620 Lanberro; 1764; 1782; 1805.

LARDI-TXIKI (5E)

Dokumentazioa: 1860 Lardachipi; 1861; 1863; 1862; 1894.

LARRATXAO (6D, desagertua)

Dokumentazioa: 1531; 1620; 1626; 1703; 1719 Larrachau; 1764; 1782; 1860 Larracho; 1861; 1863; 1862; 1894.

Oharrak: Oinetxea. Jatorrizko kokapenaren inguruan ikus LARREANDI.

LARREANDI (5E, desagertua)

Dokumentazioa: [1719 Joaquin Larreandi]; [1755 Santiago Joaquin de Larreandi]; 1861; 1863; 1862; 1894 Larreaundi.

Oharrak: Josu Tellabidek²⁸ etxe hau Larratxao etxearekin lotzen du: “Este edificio, probablemente coincide con el de la antigua casa solar LARRACHAO, que es citada por Lope de Isasti en 1625”. 1719. urteko dokumentuan: “Casa llamada Miravarqueras, propia de Joaquín Larreandi”.

LARRERDI (5E, desagertua)

Dokumentazioa: [1442 M^a Perez de Larrerdi]²⁹; 1561 Larraerdi; 1620; 1626 Larraerdi; 1703; 1719 Larrerdia; 1738; 1764; 1782; 1805 Larrerdia; 1861 Lardi; 1863 Lardi; 1862 Lardi; 1894 Lardi-aundi.

Oharrak: Oinetxea.

LARROTXENE (4B)

Dokumentazioa: 1639 Larratxao (“que está en la calzada de Pasajes”); 1719 Larrachorena; 1764 Larrachaoenea; 1782 Larrachaoenea; 1860 Larrara; 1861

²⁸ TELLABIDE, op.cit., 133. or..

²⁹ LIZASO, Domingo: “De la casa solar de Larrerdi en la población de Alza, jurisdicción de la ciudad de San Sebastián”, In: Nobiliario de Guipúzcoa. Donostia: Imprenta de la Provincia, 1901, T.II, cap. 32, 141-142 orr..

Larrachaoene; 1863 Larrachoene; 1862 Larrachaoene; 1894 Larrachoene.

LASKIÑENE (7B)

Dokumentazioa: 1703 Lascoañene; 1764 Lascoñene; 1782 Lasquinena; 1863; 1862; 1894.

LASUNENE (9B)

Dokumentazioa: 1719 Lazunenea (errota); 1764 Lazunene; 1782 Lazunene; 1861 Lasunene; 1863 Lasuene; 1862 Lasunene; 1894 Lazunaene; Lazunene.

LIZARDI (5B, desagertua)

